



BARREN

ELGOIBARKO ASTEKARIA

587. zkia.
XIV. urtea
2006ko urriaren 6a



Eizagirre okindegia

35 ogi desberdin aukeran egunero

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

San Frantzisko, 43 - 1. solairua

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

Ego Gain, 4 behea

(San Andres pasealekutik)

Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR



%25 erainoko
deskontuak
erakusketa aldatzeagatik!

Ohe artikulatuak, somierrak, koltxoiak...

Garraio gastuak doan. Berria eramatean zaharra doan jasoko dizugu.

LAGUNAK

24 hilabetetan ordaindu dezakezu interesik gabe

San Roke kalea, 20 - Tel: 943 74 44 57 - ELGOIBAR

www.textillagunak.com



AINHOA MENDIBIL

Hello yellow!

Halaxe joan dira gauzak.

Lehen astelehena. Zer jarriko dugu bazkaltzeko, baina eta nola prestatuko dugu, eta jatekoa, badaukagu, egin ditu norbaitek erosketak? Ez, kaka. Baina zela edo hala bazkaldu dugu, eta gaizki ez, ez hoixe.

Lehen martitzena. Goiza, zazpi terdiak; goiza, baina ez goiz. Zortzi terdiak; berandu.

Alarmak joko zuen, jo bai; seguruenik. Lo hartu nuen, hartu genuen; onartzen dut.

Lehen eguaztena. Kaixo, zelan? Ondo, ondo eta zu? Bueno, sartu, sartu. Hau salia, eta sukaldia, ah, eta hau nere kuartua. Gustatzen jatzu? Eta hala, lagunak bisitak pisura. Lagunen inbidia. Jaja... eta nere poza.

Ondo bizi garela? Ba bai, ze ostia!

Lehen eguena. Gaiztoa izango naiz Amaia, baina denak jakin minez lagako ditut, zaituztet. Ez da hemen kontatzekoa, ulertuko duzu. Baina polita izan zen, hori bai.

Eta ezagutu dut horrela joan den urtean zuri hainbeste entzundakoa.

Zuk zer Amaia, gogoan al daukazu zure lehen eguena?

Ala jada lehen english party-ak jan dizu memoria?

Patxo haundi bat Bilbotik horraino.

ZOZOAK BELEARI...

«Gogoan al daukazu zure lehen eguena?»

AINHOA

«Gogoratu, oso ondo gogoratzen dut»

AMAIA



AMAIA GORROTXATEGI

Hi darling!

Gogoratu, oso ondo gogoratzen dut, baina ez da oso justua zuk kontatu nahi ez duzun zerbait niri kontatuaraztea, ez?

Beraz, nik ere... Lehen astelehena. Hegazkina hiru ordu beranduago aterako da. Nere plan guztia pikutara! Hogeieuro gastatu ditut autobus konpainiako "guy" batekin hitz egiten. Nahiko ondo, hogeita bi euro balio duen autobus tiketa aldatzea hogeieuro, hogeieuro "pardon?", eta hogeieuro izerdi bakarrik kostatzen zait. Gaueko ordu batean zer egin behar dut nik Ingalaterran?

Ahizpak ni hegazkinera igo baino hogeieuro minutu lehenago internetez hartutako B&B-ean lo! Nahiko ondo!

Lehen asteartea. Nere pisukideak ezagutu ditut. Saioa eta Izaskun beharrean Nadja, Martin, Verena, Maxime, Angela, Maryline... Oraingoan bai. Benetan. Nahiko ondo.

Lehen asteazkena... osteguna... oso ondo. Ostirala, harro nago nere buruaz, nere pisukoek ondoloin esaten eta kalimotxoia edaten ikasi dute!! jaja. Oso ikasle onak dira!!! gande da, eta gaur hasi da Jochen nik esaten dudana ulertzen. Halako batean, ingelesez "properly" hitz egiten hasi omen naiz!!

Hemen dagoena, ikusten dena, ikasten dena ez da 1.000 karakteretan sartzen. Hala ere, ez dut burutik kentzen lagun batek egurrezko mundu batean idatzi zidana. Munduko altxorrik preziatuena, etxekoa.



EZIN BIZI DUT NI GABE BIZI EZIN DUENAREKIN



Nadine Gordimer

Elgoibarren emakume ahotsak entzuten dira

2006ko apirillean Donostian Ahotsak emakume taldeak bakearen aldeko ekarpen publikoa egin zuenean, Elgoibarko emakume desberdinek, ideologia eta sentsibilitate desberdinetako emakumeek, filosofia berbera erabiliz adierazpena geurea egitea erabaki genuen. Desberdintasunak desberdintasun, eta urteetako tentsioak baztertuz, elkar ulertzea posible zela ohartu ginen. Era naturalean barneratu genituen adierazpenaren hiru printzipioak: alde batetik, bakea erdiesteak eskakizun kolektiboa eta lehentasun politikoa behar zuela izan. Bestetik, proiektu politiko guztiak defendatu daitezkeela eta defendatu behar direla, bide demokratikoak erabiliz, baldintza berdinetan. Eta azkenik, Euskal gizarteak, Euskal Herriko hiritarrek, egungo marko juridiko-politikoak eraldatu, aldatu edota mantentzeko borondatea baldin badu, guztiok beharrezko diren berme demokratikoak eta adosturiko prozedura politikoak ezarri eta errespetatzeko konpromisoa hartu beharko genukeela.

Beraz, hemen Elgoibarren eta orain adierazpen hau sinatzen dugun emakumeek, bake prozesua blindatzearen alde lan egingo dugu, hondoa jo ez dezan,

zapuztu ez dadin, prozesuan zehar nahiz konponbidean, emakumeak partaide aktibo izango gara.

Hau dela eta, herriko emakume desberdinak gonbidatu nahi ditugu, ideak kontrajartzeko, hitz egiteko, hurbiltzeko, planteatzen ditugun oinarrietatik bakea eraikitzeko.

Urriaren 7an eta 8an Elgoibarko Plaza Handian, goizeko 11:30etatik eguerdiko 14:00ak arte sinadura mahaia jarriko dugu adierazpenarekin bat datorren edonork sinatzeko.

ELGOIBARKO EMAKUME AHOTSAK
MIREN ARRATE ARRIETA JAUREGI
IZASKUN AROZENA ETXABE

OHARRA

Pilarika Eguneke jai zubia dela-eta, datorren astean ez da BARRENik egongo. Hurrengo alea urriaren 20an jasoko duzue.

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. Eskutitzak izen-abizenen inizialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
3. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inizialekin sinatuta badago.
4. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
5. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

E-POSTA

barren@elgoibarkoizarra.com



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzec: **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefono zkia**.



barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
943 74 41 12 • Faxa: 943 74 37 04

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: 943 74 37 04 • E-posta: barrenpubli@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:



KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea **PUBLIZITATEA** Eider Iriondo, Amaia Erkizia **MAKETATZAILA** Jaione Unanue **KOLABORATZAILAK** Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurutxaga, Imanol Laranaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Inigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Aitaz Vives, Kokoe K.E., Uruzuno **INPRIMATEGIA** Gertu **TIRADA** 4.550 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1038/92 **ISSN** 1139-1855



TXALOAK

• Txaloak Benantzio Otaegi Parrokoari, elizako kanpaiak gabez ere martxan jarri dituelako: Herriko zenbait familiak eskerrak eman nahi dizkiote Benantzio Otaegiri, duela pare bat aste hartutako erabakia aldatu duelako: "Parrokiako kanpaiak erreferentzia dira guretzat, gauean, ohean gaudenean, kanpaiak esaten digute zein ordutan bizi garen, sekulako falta nabari genuen". Beste batzuk ordea ez daude hain gustura: "kanpaiak gabez isiltzea oso ondo dago, hobeto lo egiten da. Beste herri askotan ere egiten dute, aurrerapausuak eman behar dira, poliki-poliki".



KEXAK

• Urasandin auto asko gaizki aparkatuta egoten dira: "Badakigu herri guztian, eta batez ere, Urasandin aparkatzeko arazo larria dagoela, baina oinezkoak errespetatu egin behar dira. Jende askok espaloai gainean lagatzen du autoa, eta oinezkoen bidea oztopatzen du. Erosketetako karroarekin edo umeen kotxe-aulkiarekin ibiltzea oso zaila da".



GALDERA



• Zertarako jarri dituzte semaforoak Taxi geltokian eta King-Kong-era jaisteko aldapan?: Herritar asko etorri zaizkigu semaforo berri hauekin harrituta, eta Udaltzaingora jo dugu zertarako diren jakiteko. Sargentoarekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta berak azaldu digu semaforo hauen funtzionamendua: "Pibote hidraulikoen berri emateko semaforoak dira, piboteak jaitsita daudenean berde egoten da semaforoa, gidariari pasatzeko aukera duela adieraziz, eta piboteak altxatuta daudenean, gorri egoten da semaforoa".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

E-posta: baren@elgoibarkoizarra.com

Nafarroa enparantza, 2

20870 ELGOIBAR

943 74 41 12



Elgoibarko
Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikoko Sareko Zuzendaritza



Gipuzkoako
Foru Aldundia





URRUZUNOREN *Luma*

Sagar gorriak

Astelehena ostirala bezain maite zergatik dudan... eta zure izena datorkit gogora. Esmatzean eta loak hartzean, nire bihotza lasai dagoela entzutea. Bakardadea zer den ia ahaztea, nire itzal bihurtu zarelako, aldamenean ez zaitudanean. Pena txiki bat sentitzea hurrengo egunera arte elkar agurtzean.

Zuhaitz artean fruta bila igandean. Sagar gorriak dilin-dalan. Eta ni naiz Laboaren hitzetako "damea". Benitoren "neskatxa maitea". Bihurtu nauzu Silvioren "kapeladun anderea".

Arbola bateko bi fruta garela esan didazu orain gutxi. Hai-zeak mugituta elkartu eta urruntzen direnak. Eta nik pozik hartu dut konparazioa. Sustrai bereko adar batetik zintzilik gaudelako. Bizitza den bide honetan, zuk eta nik, bitasunetik, osotasun bat, eta bakarra, gurea, eraikitzeko...

Ainhoa Lendinez

[ZORTZIKO TXIKIAN]



ENERITZ PEREZ

ARKHIRU
ARKITEKTOAK-EKOA

Arkitekto on batek behar dituen 3 ezaugarri?

Komunikatzaile ona, artistatik zerbait eta teknika menperatzea, noski!

Etxeak su hartuz gero, zer salbatuko zenuke?

Personengatik ez bada, ez du merezi bizia arriskatzeko.

Deskriba egiguzu zure etxe ideala?

Kostaldean kokatutako solairu bakarreko etxea; hormigo, egurra eta altzairua erabiliz eraikia.

Egia al da Arkitektura eskoletan Eibar ez jarraitu beharreko eredutzat jartzen dutela?

Eibar ez, baina King-Kong etxea jarri zigun irakasle batek ez jarraitzeko eredutzat lehen kurtsoan. "Begira nolako munstroa King-Kong izena jarri diotela" esan zigun.

Herriko zein txoko erakutsiko zenioke kanpotar bati?

Plaza Handiko eraikin historikoak: udaletxea, frontoia...

Munduko zein eraikuntzak gustatuko litzaizuke Arkhituren sinadura eramatea?


Kursalak. Eraikin sinplea eta indar askokoa da.

Bilbaoko Guggenheim museoa ala Bartzelonako Bihotz Sakratuaren katedrala?

Ezin bat edo beste aukeratu. Biak izan ziren aurrerakoiak beren garaian.

komikia

Hil da gero...



Kokoe 073

[AKORDATZEN NAIZ]



MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

«Gerria»

Etxebarrin egon giñan gu gerra denporan, Bilbon. Amamak han zaukazen pariente batzuk, eta han egon giñan. Gure etxia dana hustu zeben. Ama eta aitta etorri ziran etxera, eta ez zaguan ezer. Nik 4 urte naukazen. Etxebarrin gaudela, siestia egitten edo egongo nitzan, eta leixotik ikusten niitun bonbak, baiña neretzako suzko eruberak ziran, ez naban pentsatzen zer pasatzen zan. Bilboko bonbak ziran. Edade horretan, bildurra sartzen badizue, gaizki pasatzen da, baiña bestela ez zara konturatzen. Pelikula bat ematen zaban.

Gure refujixua Etxebarriko elizia zan. Sireniak jotzen zabanian, danok elizara juten giñan. Torre haundi bat dauka. Han barruan gaudela abioiak sentitzen ziran. Zeozer pasatzen zala konturatzen giñan, baiña oso gitxi. Nere anaixak gaizkixago pasau zaban. Haura beti oso inteligentia izan da, eta haura konturatu egitten zan zeozer txarra pasatzen zala. Gu babalore hutsak giñan, baiña akordatzen naiz. Ni beti izan naiz neska fuertia, lodikotia, sekula ez mehia, eta gure amak ni besuetan hartuta pasatzen zaban zu-



bixa refujixora sartzeko. Rekuerto horrek badaukadaz.

Gerra ostian gosia egon zan, baiña Elgoibarren ez gendun goserik pasau. Basarri asko dago hamen, eta iriña, patatia, babia eta tenporada diferentietako produktuak beti zagozen.

[GURE BERBAK]

Baldintzazko esaldixak (2)

Aste honetakuan, baldintzazkuen beste forma batzuk ekarriko ditugu hona. Aditza jokatu gabe dauken egitura batzuk dira: -TU EZKERO, -TZE EZKERO (gitxixagotan) eta -TU EZIKAN.

Hona herriarretatik ateratako adibide batzuk:

- Basarrixan, beitu ezker, beti dago lana.
- Ostian bista haundixa dago hamen. Hamendikan (Bigoindikan) horra gaiñera jun ezker, hortik Debako playia, zera itxasua ta dana ikusten da.
- Soñua entzun ezker, buenoo! Dantzan gelditu be. Goizian juan ezker eguardira arte, eta eguardixan juan ezker, gaber arte.
- Permisorik izete ezker halako lekutik etortzeko, ba bihar izaten zuan zortzi-hamar egun edo gitxienez.
- Pelotarixak, danak ezagutu nik. Bestela, telebisua izete ezpalitz, pelotari bat ez gendun ezagutuko, hemengotxia izan ezikan, bateonbat.
- Baiña Elgoibarren basarrikua izan ezikan, kalekuak ya normala igarixan egittia da. Normal-normal normala.

Batzuetan ez da aditzik erabiltzen, baiña errez antzematen dogu ixilpian lagata daguala bat (izan, egon...):

- Soldaua ondo egon ezker, soldautzia ondo pasatzen dok, tirorik ezian. Gerria txarra dok.

Jesus Mari Makazaga

ELENA
ileapaindegia
Depilazio Elektrikoa
San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89

Mandiola Egurrak S.L.
Domingo Arrizabalaga
SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA
Juan Mugerza, 3 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

EIZAGIRRE OKINDEGIA

BAKOITZARI BERE OGIA

1940. urtetik San Frantzisko kaleko lokal berean dago Eizagirre okindegia. Urte mordoska bat pasatu dira hasierako okindegi hura zabaldu zenetik, eta ogiaren produkzioa ere izugarri aldatu da. Gaur egun, 35 ogi desberdin egiten dituzte egunero Eizagirre okindegiko langileek. Jose Luis Marin eta Maialen Lizarazu dira okindegiaren jabeak, eta beraiekin lanean Jose Antonio Rubio dabil. Okindegian sartu gara beraiekin, eta irin artean kontatu dizkigute beraien ofizioaren xehetasunak.

35 OGI DESBERDIN EGUNERO

66 urte pasatu dira Jose Luis zenaren gurasoek Eizagirre okindegia ireki zutenetik, eta gauzak izugarri aldatu dira. Bezeroak beti dauka arrazoia, eta ez duenean ere, eman egin behar zaio. Azken finean, saltzailea bezeroaren menpe bizi da. Horixe izan da produkzioa handitzearen arrazoia. Jose Luis Marinek argi eta garbi azaldu digu, bezeroek eskatuta hasi zirela ogi eskaintza handitzen: "Bezeroa oso exigentea da eta oso argi dauka zer nahi duen. Gainera, batak tentsio altua duela eta sojatzko ogia komeni zaiola esaten dizu, besteak kolesterola daukala, beste batak libratzeko arazoak dituela... azkenean, bezeroak ez galtzeko, beraien beharretara moldatu behar da. Poliki-poliki hasi gi-

nen ogi bereziak egiten, eta gaur egun, 35 ogi desberdin egiten ditugu egunero".

Bezero bakoitzak bere ogia dauka, baina aldatzea eta gauza berriak probatzea ere gustatzen zaie: "Ogia aldatzea senarra edo emaztea aldatzea baino errazagoa da", esan digu Jose Luisek. Hilabeteko egun bakoitzean ogi berri bat probatzeko aukera eskaintzen digu Eizagirre okindegiak: zerealen ogia, baserrikoa, txapatata, bagette, sojatzko ogia, artzokoa, zentenoakoa, osokoa, gatzik gabea... Aurre-egositako ogia oso modan dagoela kontatu digu: "10 minutu labean sartu eta ogia prest dago. Ostalaritzan asko erabiltzen da eta horrek min handia egin digu. Nire ustez, ez dauka zerikusirik beste ogiarekin, momentuan jateko ondo dago, bai-

na bestela goma bihurtzen da". Ogiaren gain, gozo gauzak ere saltzen dituzte, eta orain San Blas opilak egiten hasiko dira, Aste Santura arte.

OGIA, EGUNEROKO JANA

Gaur egun izozkailuari esker, egun batean sobratutako ogia ez da alperrik galtzen, baina oraindik ez dute asmatu egun batetik bestera ondo mantentzen den ogirik. Jose Luisek esan digunez, hezetasuna da ogiaren etsairik handiena. Bere esanetan, ogia egunerokoa den arren, hilabetea aurrera joan ahala, gauzak aldatu egiten omen dira: "izugarri igartzen dugu, hilaren erdialdetik aurrera, jendeak ogi gutxiago erosten du, edo ogi bereziak erosi beharrean, ohiko ogia erosten dute, merkeagoa delako. Oinarrizko produktua da ogia, baina poltsikoak agintzen du". Bestalde, udan askoz ogi gutxiago jaten dela aipatu digu.

TXIKITATIK HASITAKO OFIZIOA

Jose Luis Marin ume bat zela sartu zen Eizagirre okindegian: "Jose Luis zenak ogia banatzen zuenean, berarekin sartzen nintzen furgonetan eta banaketa egiten laguntzen nion, "esne-opil" baten truke. Apur bat hazi nintzenean, okindegian hasi nintzen lanean. Urte mordoa egin nituen hemen, eta gero alde egin nuen. Jose Luis hil zenean, bere alarguna eta semea nitaz gogoratu ziren, eta dagoeneko, 5 urte daramatzat hemen".

Okina izateko bokazioa behar dela kontatu digu Jose Luisek: "Niri betidanik gustatu zait ofizio hau, bestela, ezinezkoa da honetan jardutea. Goizeko 3:00etan hasten gara lanean, eta goizeko 10:00ak





aldean amaitzen dugu. Gero banaketa egin eta lantokia hurrengo egunerako prestatu behar da. Neketsua da, baina azkenerako gorputza ohiu egiten da. Hori bai, arratsaldean siesta txiki bat egitea ezinbestekoa da". Duela lau hilabete Jose Antonio Rubio sartu zen okindegian eta ordutik lana izugarri erraztu zaiola esan digu Jose Luisek: "Ez da erraza okindegi-rako langileak bilatzea. Saiakera egin izan dut praktiketako zenbait ikasle hartzen, baina hain goiz jaiki behar hori gogorra da".

BI EGUN JAI URTEAN

Urtean bi egun bakarrik dituzte jai okinek; Gabon Eguna eta Urte Berri Eguna. Hala ere, Elgoibarren domeketan txandak egiten dira, Gipuzkoa osoan tradizio hau mantentzen duen herri bakarra dela aipatu digu Jose Luisek: "Elgoibarko okindegi guztiak herrikoak gara eta oso ondo konpontzen gara gure artean. Beste herri guztietan arazoak izan dituzte, eta azkenean

denek irekitzen dute domeketan. Noski, bat irekitzen hasten bada, besteek ere ireki egin behar dute, bestela bezeroak galtzen dira. Zorionez, guri hilean behin tokatzen zaigu txanda egitea, eta izugarri eskertzen da. Pertsonak ezin du urteko 365 egunetan lan egin".

OGIAK EZ DU GIZENTZEN

Okin batek esandako hitzak dira, norbaitek agian ez du sinistuko, baina Maialen Lizarazuk argi eta garbi esan digu ogiak ez duela gizentzen: "hori mito bat da. Ogiak ez du gizentzen, ogi artean sartzen denak gizentzen du". Ikastaro asko egin ditu Maialenek nutrizioaren inguruan, eta esan digunez, "ogia egunero jan behar da, pasatu gabe, noski, baina giza-kion dietan beharrezkoa da. Gainera, oroimenerako oso zereal ona dela deskribatu dute. Lehen medikuek kendu egiten zuten gizendu egiten zuelakoan, baina gaur egun, gero eta gehiago sartzen ari dira dieta guztietan".

Ogia

pausoz pauso

1. Oragailuan ura, irina, legamia eta gatza nahasten dira.
2. Ateratzen den masa, pisatzeko makinara sartzen da. Norberak nahi duen neurriko masa bolak ateratzen dira.



3. Masa bola horiek deskantsatzen utzi behar dira.
4. Gero, formadoran sartu eta masari forma ematen zaio.
5. Bandejan jarri eta fermentadora-rara sartzen da, ordubetez. Hemen hezetasuna eta temperatura ematen zaio bolumena hartzeko.
6. Azkenik, laban sartzen da 240ºtan, ordu erdiz.
7. Saldu, "ogia egitea erraza da, zailena saltzea da", esan digu Jose Luisek.



[PROTAGONISTA]



J. Antonio Arrillaga

Jose Antonio Arrillaga sanmigeldarra bigarren postuan sailkatu zen 363 punturekin, joan zen zapatuan San Migelen jokatu zen Euskal Herriko Arraza Libreko Artzai Txakur txapelketan. Laz bera izan zen Euskal Herriko txapelduna, baina aurtengogan Carlos Pinedo arabarrak kendu dio txapela 367 punturekin. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako 9 artzainek hartu zuten parte txapelketan. Aipatu beharra dago, bestalde, Carlos Pinedoren *Uster* eta Jose Antonio Arrillagaren *Lagun* txakurrak San Lorenzo bailarako Aitor Osoro txakurhazle eta saltzaileari erositakoak dira.

[NOTIZIA]

Herritarren protesten ondorioz, Parrokiako kanpaiak berriz hasi dira gauez jotzen

Pare bat aste isilik egon ondoren, joan zen astetik aurrera, berriz hasi dira Parrokiako kanpaiak gauez jotzen. Herritarren atsedenaren mesedetan, Parrokiako kanpaiak gaueko 22:00etatik goizeko 8:00etara isilik mantentzea erabaki zuten Benantzio Otaegi parrokoak. Berak azaldu zigun bezala, "herritar batzuk eskatu ziguten gauez kanpaiak isiltzeko, eta bidezkoa iruditu zitzaigun eskaera. Gainera, inguruko herrietan ere gauza bera egingen dutela ikusirik, gauez Parrokiako kanpaiak isilik mantentzea erabaki genuen".

Protesta ugari

Parrokiak hartutako erabakia ez zen, ordea, herritar guztien gustukoa izan. "Jende askorentzat gaueko orduetan erreferentzia dira kanpaiak, eta gainera, aspaldiko tradizioa dela iruditzen zaie. Jende asko etorri zaigu kanpai hotsa faltan botatzen duela esanez, beraz, berriro lehen-gora bueltatzea erabaki dugu".



[ZENBAKIA]

500

Elgoibar eta Mendaroko 500 ikasle ari dira Olaiaga Kiroldegiko igeriketa ikastaroetan parte hartzen. Lehenengo mailatik laugarren mailara bitarteko ikasleak dira, eta talde desberdinetan banatuta, doako 20 saio jasoko dituzte bakoitzak. Kirol Patronatuak garrantzia handia ematen dio igeriketari.

asteko [ARGAZKIA]



Errosario kaleko jaietan murgildu gara aste honetan eta begira nola-ko erretratu dotorea atera dugun. Haur, zahar eta gazte txokolatea bizkotxoekin jaten. Batzuk muturra zikin-zikin eginda zeukaten, besteak eskuak edalontzi barruraino sartuta harrapatu ditugu edalontzi hondoko azken txokolate tantak batu nahian eta txukunenak koilararekin jaten zuten txokolatea. Baina denak gozamen aurpegia zeukaten. Errosario kaleko komertzio eta tabemen ekimenez antolatutako jaiak asteburu honetan amaituko dira.

Fernando Bert Muret-eko espetxera eraman dute eta isolatuta dago



[MOTZ-MOTZIAN]

Esperientzia Eskolan izena emateko epea zabalik

Debabarrenako Esperientzia Eskolaren III. Edizioan izena emateko epea zabalik dago urriaren 18ra arte. Esperientzia Eskola ikasteko eta gizartean era aktibo batez parte hartzeko gogoia duten bailarako 50 urtetik gorako pertsoneri zuzendua dago. Esperientzia Eskolaren helburu nagusiak garapen pertsonala eta gizarte-harremanak sustatzea da, Interesatuak 943820110 edo 695788936 (Carolina Lara) telefonoetara deitu dezakete.

Kalaka programarako publiko bila ari dira

ETBko Kalaka eztabaida programa publiko bila ari da. 50 laguneko taldeak behar dira. Autobusa jarriko zaie eta 250 euro ordainduko dira. 20:30erako Miramonen egon behar du taldeak eta programa amaitu ondoren, autobusak etxera eramango ditu.

Aurkene Olaizola Bai ala Ez lehiaketako irabazlea

Aurkene Olaizola izan da hilabete honetan BARREneko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Zumaiako Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkuitoa irabazi du. Lehiaketan parte hartzeko, astero BARREneko Bai ala Ez atalean egiten dugun galderari erantzun behar zaio, 7505 zenbakira SMS bat bidaliz.



Frantziako Gobernuak espetxez aldatu du Fernando Bert preso elgoibartarra. Muret-eko kartzelara eraman dute, eta Askatasunako kideek esan digutenez, iritsi bezain pronto isolamendu gela batean sartu dute: "Ia astebete pasatu da eta presoaren familiak ez dauka inongo berririk". Esan digutenez, Frantziako Gobernuaren jarrera hau ez dute ulertzen, izan ere, azaroan bukatzen baitu Bertek Frantziar Estatuarekin daukan zigorra. Elgoibarko Amnistiaren Aldeko Mugimenduak deituta, enkartelada egingo da gaur, 20:00etan King-Kongen.

Etixerat taldearen salaketa

Bestalde, Etixerat-ek Ertzantzaren jarrera salatu nahi du, irailleko azken ostiraleko enkarteladan erakutsi zuen jarreragatik: "hileko azken ostiralean egiten dugun enkarteladara agertu zen Ertzantza, eta oso jarrera probokatzailera erakutsi zuen. Enkarteladan parte hartzeraz zuzendutako bat identifikatu eta Audientzia Nazionalera eramango zutela esan zioten. Ez dakigu zein zen arrazoia, baina hileroko egiten den enkarteladaren aurrean Ertzantzak jarrera hori hartzea ez zaigu bidezkoa iruditzen".

Herriko zenbait familia laguntza sozialak kobratu gabe daudela salatu du Einbiouk

Einbiou Herri Plataformatik adierazi dutenez, laguntza sozialak kobratu gabe daude herriko zenbait familia behartsu: "hiru hilabeteko zorra dauka Udalak herriko zenbait familiarekin, uztaila, abuztua eta irailleko dirua ez baitute kobratu. Familia batzuri 600 euro zor dizkiete". Einbioutik jakinarazi digutenez, "Udaletik arazo tekniko bat izan dela esan diete familia hauei, arazo larria izango da, hiru hilabetetan ez konpontzeko". Diru laguntza hauek oso garrantzitsuak dira familia

hauentzat: "justu-justu iristen zaie etxeko alokairua ordaintzeko. Zer esango diote etxeko jabeari, 3 hilabete barru ordainduko diotela?".

Hau guztia kontuan izanik, Einbiou Herri Plataformak Udalaren jarrera salatu nahi du: "Hainbeste eraikuntza, hainbeste berritze eta zulatze, hainbeste iturri eta olibondo, baina Ongizateko arloan ere, egin beharrekoak egin gabe dauzka. Eta beti bezala Udalaren arduragabekeriak herritarrek jasan behar dituzte".

Inkesta

Aurten 40 langile hil dira lan istripuetan Euskal Herrian.

Ikusten al diozu irtenbiderik lan istripuen arazoari?

RAUL FERNANDEZ

Autoeskolako
langilea 25 urte



“Zaila da. Nagusiek langilea gehiegi presionatzen dute eta gainera, segurtasun neurriak beranduegi hartzen dira, istripuren bat gertatu arte ez da ezer egiten.”

JON PARADA

Langabetua
19 urte



“Ez. Langileek ez dute segurtasunaren arazoa serio hartzen, beti uste dute ez dela ezer gertatuko. Obretan ikusten da ez direla beharrezko neurriak hartzen.”

JOSE NUÑEZ

Garraiolaria
48 urte



“Zaila ikusten dut. Nik uste dut langileok erru handia daukagula, erosotasuna zaintzen dugu, baina segurtasuna ez. Ez gaude kontzientziatu-ta.”

MAITE PEREZ

Irakaslea
43 urte



“Ez da erraza. Segurtasuna kostua da enpresarentzat eta langileak askotan ez du segurtasun neurririk hartzen, ezer ez zaiola gertatuko pentsatuz.”

[BAI ala EZ?]

Elgoibarren dugun garraio publiko zerbitzua egokia al da?

BAI %47

“Bai, zerbitzu txukun samarra daguala begi-tantzen jata. Trena eta autobusa, zerbitzu bixak daude eta sasoi batetik hona zerbitzuaren kalitatea ere dezente hobetu da.”

EZ %53

“Ez. Bilbora joateko ez daukagu autobusik Elgoibartik, Eibar-rera joan behar da. Bestalde, trena oso motela da, ordu-bete baino gehiago behar da Bildo edo Donostiara joateko.”

Datorren asterako... 29.000 gaztek kontsumitzen dute cannabisa egunero Espainiar Estatuan.
Drogen eraginez ondo informatuta gaudela uste al duzu?

Bidali SMS bat:

BARREN (espazioa) ERANTZUNA

7505 zenbakira

SMS kostua: 0'90 ¢ + B.E.Z.-a.

Talasoterapia
Zelai
Z U M A I A

Hilabete honetan
2 pertsonentzako zirkuito
bat zozketatuko dugu
Zumaiako Zelai Talasoterapian.
Zenbat eta erantzun gehiago,
aukera gehiago!

www.talasozelai.com

JAIOTAKOAK



Nora Sasiain Laskurain
[Irailak 13]
Asier eta Lucia



Markel Gorosabel Leyaristi
[Irailak 16]
Ibon eta Leire



Ane Mujika Pikabea
[Irailak 19]
Gorka eta Leire



Nora Gurrutxaga Osoro
[Irailak 23]
Jon eta Elisabete



Paula Guarrotxena Ortueta
[Irailak 24]
Gorka ta Vanessa



Joane Kapanaga Zaldúa
[Irailak 25]
Imanol eta Leire

Danel Larreategi Fernandez
[Irailak 26]
Juan Carlos eta Josune

Iratxe Melgar España
[Irailak 12]
Jose-Reny eta Maria Dolores

Haizea Oñederra Regalado
[Irailak 26]
J. Luis eta Cristina

Oihane Oñederra Regalado
[Irailak 26]
J. Luis eta Cristina

HILDAKOAK

Dominica Oria • [95 urte] • Irailak 1
 Maria Josefa Rodriguez • [80 urte] • Irailak 7
 Josefa Gozalo • [85 urte] • Irailak 10
 Jesus Galarraga • [79 urte] • Irailak 12
 Luis Ondarza • [75 urte] • Irailak 18
 J. Migel Agirregomezkorta • [52 urte] • Irailak 25
 Maria Rosa Andueza • [61 urte] • Irailak 29
 Leandro Rodriguez • [76 urte] • Irailak 29

EZKONTZAK

Jon Revert eta Vanesa Mateos [Irailak 16]
 Asier Gabilondo eta Inga Segurola [Irailak 17]
 Michel Cerdeira eta Olga Otaegui [Irailak 23]
 Mikel Panizo eta Olaia Aizpurua [Irailak 23]

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu **BARREN** astekarira **943 74 41 12** telefonora edo bidali e-postaz barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak.**

**Donostia eta
probintziako
erietxe zentroetan
ere bai.**

Santa klara, 14 20 870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27 (Etxekoa) 943 74 01 17 - 74 16 56

(Mobila) 608 77 07 01

IRAKASLEARI azterketa

LHko irakaslea

EDURNE MONTERO



- 1 Zergatik irakasle?**
Betidanik gustatu izan zait. Anai gazteagoak ditut eta haiei irakasten ibiltzen nintzen etxean.
- 2 Erabiltzen al zenuen txuletarik ikasle garaian?**
Bai, Batxilergoan batez ere. Greko eta latineko deklinabideak edota kimikako formulak jartzen nituen txuletetan.
- 3 Zaila al da irakasle izatea?**
Niretzako ez, gustatzen zait irakasle izatea.
- 4 Irakasle lanbidea "txollo" bat dela esaten da. Zer diozu?**
Oporrei begiratuta bai, baina estres handia eragiten du irakaskuntzak.
- 5 Aldatuko al zenuke zure lanbidea?**
Borondatez ez, beste aukerarik ez banu, aldatu beharko nuke.
- 6 Irakasle izatearen alderik onena?**
Ikasleek ematen dizuten bizitasuna. Ematen diezuna baino gehiago jasotzen duzu. Umeekin lan egitea izugarri gustatzen zait.
- 7 Eta txarrena?**
Gurasoei informazio batzuk ematea oso gogorra da.
- 8 Pazientzia handia al daukazu?**
Umeekin bai, nagusiekin bat ere ez.

NOLAKO ENBORRA... halako ezpala



ALBERTO GARCIA aita



AITOR GARCIA semea

GALDERAK

- | | | |
|----------------------------------|---|--|
| 1. Egin duzun azken ametsa? | 1. Lanik egin gabe bizitzea da nire ametsa. | 1. Amets gaizto bat izan zen. |
| 2. Urteko sasoirik gustukoena? | 2. Udazkena, hego haizea gustatzen zait. | 2. Negua, elurra gustatzen zait. |
| 3. Reala ala Athletic? | 3. Alaba eta ni Athletic zaleak gara. | 3. Reala, amatxo bezala. |
| 4. Ikustezina bazina... | 4. Ez dakit zer egingo nukeen. | 4. Ez nuke nahi ikustezina izatea. |
| 5. Hondartza ala mendia? | 5. Mestia. | 5. Hondartza. |
| 6. Denbora librean... | 6. Kirola egin eta irakurtzea dut gustuko. | 6. Gurasoekin mendira joaten naiz. |
| 7. Irakurri duzun azken liburua? | 7. "La catedral del mar", oso ona. | 7. "Zirkuko itzala" irakurtzen ari naiz. |
| 8. Zerk ematen dizu beldurra? | 8. Gaixotasunek beldurtzen naute. | 8. Iluntasunak. |

TXIKI inkesta

Zein aktorerekin pasako zenuke arratsalde bat?


Miriam Osoro
12 urte

"Rebelde way" telesaileko Benjamin Rojasekin. Oso aktore ona eta oso mutil guapoa delako.



Imanol Cid
14 urte

"Los Serrano" telesaileko Natalia Sanchezekin. Oso ondo abesten du eta oso aktore ona delako.



Eneko Gomez
11 urte

"High school musical" filmeko Vanessa Ane Hudgensekin. Oso neska guapa da eta oso ondo abesten du.



Nora Santiago
12 urte

"High school musical" filmeko Zac Efronnekin. Oso guapoa da, eta oso ondo abestu eta antzezten du.



2006-10-6

LEHIAKETA

Zer dago faltan, soberan edo aldatuta?



Erantzuna:

Izen abizenak:

Telefonoa:

SARIA

Elhuyar-ek eskainitako

"EUSKAL HERRIKO SOINU-TRESNAK"

CD-ROMa



AURREKOA:



Irabazlea: **Ekaitz Atxa**

14 urtetik beherakoei zuzendutako lehiaketa.

Erantzunak BARREnera ekarri edo posta elektronikoz bidali:

barren@elgoibarkoizarra.com



MARI KARMEN GARMENDIA ERROSARIO KALEKO BIZILAGUNA

«Errosarioko Amabirjinari salbea abesten zaionean demaseko tristura sartzen zait»



Errosario kalea asko aldatu da azkenaldian. Sasoi batean 7 taberna eta bizitasun handia izatetik hiru taberna bakarrik izatera pasa da. Eskerrak, gutxienez, banketxe gehien dituen kalea den. Urteotan aldatu ez dena kaletarren jai giroa da. Hala azaldu digu Mari Karmen Garmendiak.

► Akorduan al daukazu zure haurtzaroko Errosario kaleko jaiak?

Kale dena jendez gainezka egoten zen, parte hartze handiko jaiak izan dira beti. Ez dakit lehengoak ala oraingoak ziren hobeak, baina lehengo jaiak sanoagoak ziren zalantzarik ez daukat. Beste modu batera bizi genituen. Orain, aldiz, dena da edatea, zarata ateratzea... zapatueta kalean gora eta behera ibiltzea besterik ez dago horretaz jabetzeko.

► Nolako ekintzak egiten ziren?

Denetarik: zaku karrerak, zinta lasterketak, erraldoi eta buruhandiak... Sokamuturra ere aspalditik egiten da, behin zezenak ihes egin zuela akorduan daukat-eta. Hurrengo egunean topatu zuten Lerungo futbol zelaitik gora. Kakumetarrek eta rusotarrak antzeztzen zituzten kale antzerkiak ere famatuak ziren. Hauetz gain, jaiak beti eduki dute erlijio kutsua; hildakoen omenezko mezak, bezperak, e.a.

► Ba al zegoen jai-giroa sortzeagatik ezaguna zen kaletarrik?

Errosarion bizi zen gizon bat akorduan daukat, bai. Jaien bezperan, bandoa egiten zuten, garai hartan kalera etortzen ziren

fruta eta janari saltzaileen imintzioa eginez, "Errosario kaleko emakumeak" oihukatzen zuten "balkoietatik txintxilarioak jarririk behar dira, eta hala egiten ez duenak ez du herri honetako ogirik gehiago jango". Grazia handia egiten zigun. Jai-giroa epeltzeko egiten zuten, gatz eta piper pixka bat emateko. Orduan ez zegoen ikurrin eta horrelakorik, baina izarak edo etxean bilatzen genituenak txintxilikatzen genituen balkoi eta leihoetatik, Errosarioko Amabirjinaren Egunean. Errosario kalean beti egon dira pertsona alaiak.

«Lehengo jaiak sanoagoak ziren: edatea eta zarata dira nagusi orain»

► Esaterako?

Oso ezaguna zen Errosario kaleko mutil koadrila batek San Bartolome Txiki Egunean egiten zuten antzerki barregarria. Pilotarik gabeko partidua jokatzeko Plazako frontoian. Han ibiltzen ziren frontoian beren burua alde batera eta bestera botatzeko, pilota ikusezinenaren atzetik ariko balira moduan. Jende guztia algarraka egoten zen, pozarren. "Las Rusas" ezizenaz ezagutzen genituenak ere oso alaiak eta kantuzaleak ziren (Katuska taberna eduki zuten hauek). Anaia-arreba mordoa ziren eta gustura aritzen nintzen beraien abestiak entzuten, aurrez aurre bizi nintzen-eta.

► Zer sentitzen duzu Amabirjinari eskaintzen zaion salbean?

Juanito Gorostizak eta Maite Vallejok 1992an sortu zuten ohitura polita da Amabirjinari salbea abestearena, baina ez da niretzako modukoa. Amabirjinari errezatze-ko ordua iristen denean, Doriren txarkuterian sartu eta negarrez hasten naiz. Beti falta da etxeko norbait eta momentu horrek demaseko tristura ematen dit. Ez lehen eta ez orain ez naiz joaten.

ANTZERKIA

"Nasdrovia Chejov!" Antón Chéjov-en lanetan oinarritutako antzezlan gaur iluntzean Herriko Antzokian

Max Saretan -Oscar Sarien antzerki munduko ahaideak- ikuskizun berrien atalean 2006ko saria merezi izan zuen antzezlanaz gozatzeko aukera izango dugu gaur iluntzean (22:15) Herriko Antzokian. Vaiven Producciones antzerki taldearen eskutik, Antón Chejov ("La Gaviota", "Tio Vania"...) idazle errusiarren bost ipuin laburretan oinarritutako "Nasdrovia Chejov!" antzezlan ikusteko aukera, hain zuzen ere. Autore handi honen heriotzaren mendeurrenean omenaldi txikia eskaini nahi izan diote: "bere umorearen unibertsoan murgildu gara, perla txiki ugari bildu ditugu, dramaturgia eta zuzendaritzaren eskutik jakituriaz eta begi onez landu ditugu, eta aktore bikainek ditzira araziko dituzte". Alberto Iglesias arduratu da testuetaz, Fernando Bernues zuzendaritzaz eta Isidoro Fernandez eta Jose Ramon Soroiz dira aktore ezagunenak, azken belaunaldiko aktore euskaldun gazteekin batera.



"Robin eta Hood" domekan

Bestalde, Gorakada Antzerki Taldeak, "Robin eta Hood" Sherwood basoko heroiaren inguruan egindako somen berriko antzezlan eskainiko du domekan, urriaren 8an, Herriko Antzokian. Hezur haragizko aktoreak eta txotxongiloak konbinatzen ditu familia osoari zuzendutako ikuskizunak.

Euskal Dantzen ikastaroa urriaren 23an hasiko da



Haritz Euskal Dantzari Taldeak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak, Euskal Dantzen ikastaroa antolatu dute aurten ere. Bertan, hainbat dantza ikasteko aukera izango da: trikitixa, iauziak eta plazako dantzak, oro har. Aurten ere, bi maila izango dira, bata hasiberrientzat eta bestea lehendik ere ibilitakoentzat. Ordutegiei dagokionez, hasiberriek bi aukera izango dituzte: astelehen eta eguaztenetan (21:30-22:30) edota martitzen eta egueneetan (21:30-22:30). Lehen ibilitakoentzako klaseak, beriz, barixakuetan izango dira (19:30-21:00). Interesatuak urriaren 20a baino lehen egin beharko dute izen-ematea Musika Eskolan. Ikastaroa urriaren 23an hasi eta abendura arte luzatuko da.

Aldizka, bi hilean behin BARRENarekin batera

Konturatuko zineten moduan BARREN aldizkariarekin batera "Aldizka" aldizkaria jaso duzue aste honetan etxeko gutunontzian. HerriKOk (Herri Komunikabideak Taldea), alegia, Topaguneak eta zenbait Euskara Elkartek, kudeatu eta sortutako aldizkari berri honek gai orokorrak landuko ditu, eta printzipioz, bi hilean behin argitaratzeko asmoa dute. Lehenengo alea 16 orrikoa da eta Eusko Label produktuei buruzkoa da. Guztira 45.000 aleko tirada izango du eta aurrerantzean BARRENekin batera jasoko duzue.




Kokoe Komiki Lehiaketako lanak Kultur Etxean ikusgai

Ohitura duten legez, Kokoe Komiki Elkartekoek IX. Kokoe Komiki Lehiaketan parte hartu duten lanekin osatutako erakusketa jarriko dute Kultur Etxean. Aurten, urriaren 20tik 27ra bitartean egongo dira ikusgai komiki lanak. Urriaren 20an, barixakuan, egingo da sari banaketa. Lehen sarituak 500 euro poltsikoratuko ditu, 300 euro bigarrenak eta 200 euro hirugarren sarituak.



JOSU CASTAÑARES ZALDUNA

«Norberak menperatu behar du zaldia eta ez alderantziz»



Zaldi lasterketen munduan ezagunak dira Castañares anaiak. Batak ez bada besteak hainbat lasterketa irabazi dituzte azken urteotan. Aurten anaia gaztea, Josu, nabarmendu da: maiatzetik irailera bitartean jokatu diren 7 zaldi lasterketa irabazi ditu "Bizkor" zaldiaren bizkar gainean.

► **Azken 7 zaldi lasterketak errenkadan irabazi dituzu. Hori da marka!**

Bai; Asteasu, Aia, San Roke (Elgoibar), Albiztur, Elgoibar, Bidania eta Zizurkilgo lasterketak irabazi ditut. "Bizkor", nire zaldiak, izenari ohore egiten dio zentzu guztietan. Izan ere, lasterka azkarrena izateaz gainera, oso argia da. Lazko abenduan ekarri genuen eta segituan lkasi ditu anaiak eta biok irakatsitakoak, berehala moldatu da lasterketetara. Honez gain, lesiorik ez dugu izan. Anaiak ez du horrenbesteko zortetik izan zaldiarekin, bestela, ziurrenik, bera izango zatekeen areririk gogorrena.

► **Zer gertatu zaio bada lgorri?**

lazko azken 3 lasterketak irabazi ostean, denboraldi hasieran Alanbre batekin hanka batean min hartu zuen "Hodei"k, anaiaren zaldiak, eta bizpahiru hilabetez geldirik egon da. Sendatu eta lasterketetara itzuli zenean, ordea, sasoi batean egon gabe hasi zen. Dagoeneko guztiz osatu da eta datoren urtean ere bi anaiok gerra asko ematea espero dugu.

► **Ba al duzue anai arteko "pikerik"?**

Keba! Gehien gustatzen zaiguna anaia batek lehenengo eta besteak bigarren bukatzen ditugun lasterketak dira. Aurten ez dugu aukerarik izan, baina datorren urterako badugu esperantzirik. Zaldiak ere elkarrekin prestatzen ditugu eta baita entrenamendutan ibili ere. Nire zaldia anaiari bakarrik lagako nioke.

► **Ilusio gehien egin dizun garaipena?**

Duela bi urteko San Bartolomeetan ere irabazi nuen arren, norbere herrian irabaztea beti da berezia. Gainera, berez naiz urduria, eta heritarren aurrean urduriago jartzen naiz. Lasterketa hasten denean bakarrik baretzen naiz eta handik aurrera irabaztea da nire helburu bakarra, topera joatea. Zaldi gainean zaudenean ez du ematen horren bizkor zoazetik, baina kanpotik ikusten duen jendeak beste inpresio bat izaten du.

► **Nola prestatzen duzu zaldia?**

Zaldiari kurbak hartzen, aurreratzen, geratzen, e.a. irakatsi behar zaio. Atleta bat bailitzan prestatu behar da, eta egunero ibili behar da zaldiarekin, ordu erdi bada ere, iraupena eta abiadura landu behar baitira.

► **Zer ezaugarri ditu "Bizkor"ek?**

Anglo-arabiar arrazakoa da; %53a arabiarra eta %47a ingelesa. Donostiar lagun baten bitartez lortu bagenuen ere, Frantzia jaiotakoa da. Abiada eta esplosibitate handikoa da. Halere, zaldi ona edukitzeaz gain, eramaten jakin behar da, zaldia menperatzen, eta ez alderantziz. Konpenetrazioa ezinbestekoa da. Askotan entzun behar izaten dira 'zaldi onena daukazulako irabazten duzu' eta antzerakoak. Nire erantzuna: hartu nire zaldia eta atera zeu, ia nola moldatzen zaren.

«Nire zaldia anaiari bakarrik lagako nioke»



PR IBILBIDEEN INAUGURAZIOA

“Elgoibarko Itzulia” eta “Sallobenteko Sekretuak” mendi ibilbideak inauguratu dituzte



Elgoibar inguratzen duten mendi eta bazterretaz gozatzeko bi ibilbide markatu izango ditugu aurrerantzean elgoibartarrok. “Sallobenteko Sekretuak” (PR-Gi 156) eta “Elgoibarko Itzulia” (PR-Gi 157) ibilbideak, hain zuzen ere. PR izkiek ibilbide motza (Pequeño Recorrido) esan nahi dute eta marra txuri eta horiak jarraituz osatzen dira. Joan zen domekan egin zen bi ibilbideen inaugurazio ofizialean 80 lagun batu ziren IMH parean. Morkaiko Mendizale Elkarteko presidentea, Aitzol

Arriola, arduratu zen zinta mozteaz eta ibilbideen gaineko xehetasunak emateaz. Morkaikok, Udalak eta Debegasak elkarlanean prestatu dituzte bi ibilbide hauek. Inaugurazio ekitaldiaren ostean, ibilbidearen edertasuna bertatik bertara gozatzeko aukera izan zuten herritarrek. Sallobenten luntxa egin ostean, Makina Erremintaren museoa bisita gidatua eginez amaitu zuten eguna. Sallobenteko Sekretuak ibilbidea bizpahiru orduan egiteko moduko txango eroso da, eta baserri giroari eutsi

dioten bi auzo bisitatzen dira: Sallobente/Ermuaran eta San Roke. Honez gain, ibilbide honetan Elgoibarrek bere bilakaeran gorde dituen elementu ezkutu edo ez hain ezagunak nabarmendu nahi izan dira. Hartarako, lau interpretazio mahai jarri dira ibilbidean. Elgoibarko Itzulia, luzetxogoa eta ezagunagoa da Morkaikori esker. Honek, Elgoibar inguratzen du mendiz gero Morkaikoren egoitzara jo daiteke.

TERTULIAK programa (2006-2007)

Euskaldun berriak euskaldun zaharrekin tertulian



“Laga lotsa alde batera, zuk uste duzuna baino gehiago dakizu eta”

Kristina Arizmendiarrreta

“Tertuliak programa oso aproposa da dakiguna praktikatzeko eta ez dakiguna ikasteko”

Pili Freitas



Urritik ekainera, astean ordubetez. Hiru-lau laguneko talde txikietan. Doan. Izena emateko azken eguna: **urriak 20**

Informazioa: **ELGOIBARKO IZARRA** (943 74 16 26), **AEK euskaltegia** (943 74 13 32) eta **UDAL EUSKALTEGIA** (943 74 27 31)

Babeslea: **Elgoibarko Udala**

TXIRRINDULARITZA

San Pedrorra Txirrindulari Igoera Pilarika Egunean jokatu da



Urtero legez, Pilarika Egunean (urriak 12) jokatu da txirrindulari denboraldiari amaiera ematen dion proba: afizionatuentzako San Pedrorra Txirrindulari Igoera. Aurtan ez da faborito argirik izango, Iñigo Lariz, probaren dominatzaile nagusiak (lau bider irabazi du), ez baitu parte hartuko, "denboraldia ohi baino lehenago bukatu nuen, duela hila-bete, eta gehiegi ez luzatzea erabaki nuen. Gainera, besteei ere aukerak eman behar zaizkie". Errekorra (13:21) ere Larizen eskuetan dago oraindik. Jubeniletan denboraldi aparta burutu duen Beñat Urain mendarorarra edo azken bi urteetan 2. postuan amaitu duen Jorge Gonzalezek aukera polita daukate beren izena proba gogor honen palmaresean onskribatzeko. Lagun Taldeak antolatutako lasterketa goizeko 12:00etan hasiko da.

Elgoibarko Xake Txapelketa urri bukaeran hasiko da

Urriaren 27tik abenduaren 25era bitartean jokatu da Elgoibarko Xake Txapelketa. Infantil, jubenil eta senior mailako xakelariak arituko dira bertan. Elgoibarko Xake Taldeak pista beltzean duen lokalean jokatu dira partidak ostiralero. Izena emateko lokaletik pasa (18:30etik aurrera) edo 630 731 132 (Mikel) telefonora deitu. Bestalde, ostiralero (gaur hasita) egongo da irekita pista beltzeko lokala 18:30etik aurrera. Bertan, gazte nahiz nagusientzako doako klaseak emango dira. Eta besterik gabe, xakean jokatu nahi dutenentzako ere zabalik egongo dira ateak.



Santurtzi eta Haundiren arteko partida suspenditu egin zen

Azken orduko gastroenteritis epidemia baten ondorioz, Haundik eta Santurtzik elkarren aurka jokatu beharreko partida bertan behera geratu zen joan zen domekan, Bizkaiko herri honetan. Haundiko jokalaria eta teknikoek ordu erdi lehenago, beroketa ariketak egitera ateratzeko zorian zirela, jakin zuten Santurtziko 14 jokalari

beherakoarekin gaixorik zeudela eta partidua ez zela jokatu. Elgoibartarrak ez dira santurtziarren jokaerarekin eta gauzak egiteko moduarekin batere gustura geratu, baina azken erabakia Euskal Federakndeari dagokio. Litekeena da, urriaren 29an jokatzeko partida, ez baita Liga Txapelketarik.

[EMAITZAK]

FUTBOLA

Elgoibar 0 - Touring 3 (Inf. Txiki)
Elgoibar 8 - Soralue 0 (Kad.)
Anaitasuna 3 - Elgoibar 1 (Neskak)
Sanse 4 - Elgoibar 5 (O. Inf.)
Aretxabaleta 2 - Elgoibar 0 (Jub.)

ARETO FUTBOLA

Koska Azkoitia 1 - Kenci 5 (Euskal Liga.)
Egintza 4 - Kenci 1 (2. maila Gip.)

PILOTA

Gipuzkoako Txapelketa

Lagunak (Arrib./Agi) 22 - Aretxabaleta 18 (kad.)
Bergara 15 - Lagunak (Atxa./Loio) 22 (2. Nag.)
Alizatarra 18 - Lagunak (Agi./Laza) 22 (3. Nag.)

ESKUBALOAIA

Aterpe 11 - Bergara 10 (Inf. Nesk.)
Lojantzi 31 - Lagunak 32 (Senior. nesk.)
Tecnomeca 20 - Bidasoa 21 (Kad. mut.)
Pneumax 13 - Bidasoa 30 (Jub. mut.)
Tecnifuelle 26 - Dam-Lea 20 (Senior mut.)
Aiala Zarautz 17 - Cometel 16 (Jub. nesk.)
Arrate 16 - IMH 18 (Kad. nesk.)

[AGENDA]

FUTBOLA

Mintxetan
Zapatua, 7
16:30 Haundi - S. Pedro (3. maila)
Domekia, 8
9:30 Elgoibar - A. Ondarroa (Inf. A.)
11:00 Elgoibar - Zarautz (Neskak)
12:45 Elgoibar - Bergara (Jub.)

ESKUBALOAIA

Kiroldegian
Zapatua, 7
17:30 IMH - Atxuri Jatetxea (Kad. nesk.)
19:00 Cometel - Bera-Bera (Jub. nesk.)
Domekia, 8
10:00 Olalsa - Pulpo (Inf. nesk.)
11:00 Aterpe - Pulpo (Inf. nesk.)

ARETO FUTBOLA

Kiroldegian
Zapatua, 7
16:00 Kenci - Izkepot (Euskal Liga)
19:00 Cometel - Bera-Bera (Jub. nesk.)

ESKU PILOTA

Ikastolan
Barixakua, 6
22:15 Lagunak - Ilunpe (2. Nag.)

[IDARRAGA SARIAK]

IDARRAGA KAFAK 10. SARIA

HAUNDIko jokalaria erregularrena 06/07

Jokalaria	Puntuak
1. Iker Martinez	11
2. Navarete	9
3. Amiano	7
4. Arruti	6
5. Morais	5

[ETXEBIZITZAK]

SALMENTA

▶ Pisia salgai Urasandin. 3 logela, egongela, komuna, bainugela, sukaldia. Eguzkitsua. Prezioa adosteko. Bizitzera sartzeko moduan.

662 01 66 30 (Mari Paz)

▶ Etxea salgai Errosario kalean. 80m². Merke. **695783092**

▶ Kanpoaldera ematen duen duplex-a salgai Urasandin. Berritua. 3 logela, 2 komun eta ganbara irekia. **653 715141**

▶ Etxea salgai Urasandin. 4 logela eta trasteroa.

636199732 (19:00-21:00)

▶ Etxea salgai Erretxindin. 90m². Eguzkitsua, 3 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara.

680707639

▶ Etxea salgai Urasandin. 3 logela, egongela, sukaldia eta komuna.

677 77 29 20

ETXEA SALGAI MENDARON

Mendarozabal Auzoan.

3 logela, sukaldia, komuna eta egongela. Dena kanpoaldera.

Bizitzera sartzeko prest.

943 03 38 44

686 62 21 92

▶ Etxea salgai Plaza Txiki inguruan. 71,5m². Gas naturala, igogailua, ormigoizkoa. Bizitzera sartzeko moduan. Etxeko argazkiak ikusgai www.esnips.com/web/etxepolita helbidean. **660884060**

▶ Etxea salgai Mendaro erdialdean. 3 gela, 2 komun, sukaldia, jangela eta egongela. Garaje itxia, ganbara, berogailu zentrala, erdi jantzia. **659801032**

ALOKAIRUA

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. Premiazkoa.

666032715

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

620049420

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron.

687209139

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

669223527

▶ Negozioa hemen dudalako, etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibar edo Mendaron.

697897899

▶ Pisia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren edo Eibarren.

690296857

▶ Pisu txikia hartuko nuke alokairuan Elgoibarren.

626914904

[AUTOAK]

▶ 125cc-ko errepideko motorra salgai. Daelim Roadwin 2006. Berria, 2.000km, errebisioa pasatu berri, aseguru 2007ko maiztara arte.

653735849

▶ Opel Corsa autoa salgai. Oso egoera onean. 900 euro. (Josu) **608394305/943743610**

▶ Renault Traffic SS-X furgoneta salgai. 220.000km. Sukaldia, dutxa, berogailua eta literak.

679 60 92 83

(21:30-22:30)

[GARAJE eta LOKALAK]

▶ Garaje itxia alokatzen da Bernardo Ezenarro kalean. Trastero eta guzti. **605775315**

▶ Garajea alokatzen da Santa Ana 2an, Ametsa parean. Marraduna.

615787857

▶ Lokala hartuko nuke alokairuan Elgoibarko erdialdean.

627784494

OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira.

Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 € eta alokairua 8 €.

Autoak 8 € . Eta bestelakoak 5 € .

Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

LANA

ESKAERA

• Emakumea garbiketara lanak egiteko prest. **943 742201**

• Neska eskaintzen da goizez etxe eta portalak garbitzeko. **943 742827**

• Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Etxean edo ospitalean. **660511781 (Elena)**

• Emakumea orduka nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketarako prest. **647100572**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **943033809/696136780**

• Emakumea garbiketara lanetarako, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. Orduka edo interna. **646235195/636362251**

• Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. **943530803**

• Emakumea nagusiak edo gaitzak zaintzeko prest. Egunez edo gauaz. Orduka ere. Esperientziaduna. **943172896 (Merxe)**

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **639020180**

• Emakumea lanerako prest. **660800954**

• Mutil gaztea arratsalde eta asteburuetan lanerako prest. **627104915**

• Mutila lanerako prest. Nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile, kamarero...

692703069 (Luis)

• Pertsona eskaintzen da garbiketara eta umeak edo nagusiak zaintzeko.

626 914904 (Rosa)

• Emakumea nagusiak zaintzeko prest. **649 36 81 37**

• Ingelesko klase partikularrik ematen ditut. **943741091**

• Ingeles partikularrik ematen ditut. Talde txikiak. **679113446**

• Emakumea garbiketara lanak egiteko prest: elkarrekin, tabernak, lokalak... **667 709 439**

• LH eta DBHko klase partikularrik ematen dira. **943 53 10 54**

ESKAITZA

• Mendaroko kafetegirako sukaldaria behar da. **943030150**

• Asteburuetarako kamareroa behar da. **943030150**

• 1. edo 2. mailako ofizial soldatzailea eta muntatzailea behar da. **699537598**

• Plegatzailea behar da. Planoen ezagupenarekin. **699537598**

• Neska euskalduna behar da barran lan egiteko. **670654921**

• Tituludun erizainak behar dira Elgoibarrerako. **609318192/943466150**

• Euskara irakaslea behar dut klase partikularrik jasotzeko. **696 96 40 69**

• DBH1. mailako partikularrik emateko pertsona bat behar dut. **626 23 75 70 (Ana)**

• Goi edo Erdi Mailako Ingeniari Elektrikoa behar da. Siemens Step 7 Automaten programazioan eta Visual Basic. Ingeles maila altua. 28-40 urte. **943121608 (Jose Ramon)**

• Ume batentzat frantses irakaslea behar da. **647707081**

• Kamareroa behar da. **943 12 12 62**

ABISUAK

• Igandean Mintxetan egon zen mendi iterean txanodun suda-dera urdin argai galdu nuen. Aurreko aldean zenbaki bat du. **943743002**

• "Rifen sarea"ren jabearekin kontaktuan jarri nahiko genuke. **676402851 (Manterola)**

• Erropa batzuk topatu ditut portalean. Levisak, ume jantziak, blusak... berri-berriak. Falta zaiolari Udaltzaingotik pasa dadila.

• 1956an jaiotakoan kinto bazkaria Mendaron. Urriak 1, Landa ja-tetxean. Izena emateko azken eguna irailak 25. Kutxako 2101 0054 13 0125574137 zenbakian 60 euro sartu. **943 756059**

• Udako trajea galdu nuen etxe batetik besterako traslodoa egite-rakoan. Errosario kalean. **695711836/943740171**

[ZORIONAK]



▶ Zorionak **Javier** hilaren 3an 2 urte egin zenituelako. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Markel** urriaren 3an 4 urte egin zenituelako. Etxekoan eta bereziki, Haizearen partez.



▶ Zorionak **Jose Manuel** urriaren 3an 11 urte egin zenituelako. Familiakoan eta bereziki, anaien partez.



▶ Zorionak **Merxel** la laster etortzen den umea, ezagutzeko gogoa daukagu-eta! Muxuak Tamara eta Aidaren partez.




▶ Zorionak tia **Petri** zure hogeitapiku urteetan. Oso ondo mantentzen zara. Segi horren guapa. Tamara eta Aida.



▶ Zorionak **Aida** 5 urte egin dituzulako. Neska haundia egina zaude. Aitxixa, amama, guraso eta Tamararen partez.



▶ Zorionak **Danel** urriaren 5ean 4 urte egin zenituelako. Guraso eta Heleneren partez. Ondo pasa eguna!



▶ Zorionak **Ekaitz** gaur 8 urte egin dituzulako. Familiakoan eta bereziki, anai losuren partez.



▶ Zorionak **Charo** auzoko marujen partez.



▶ Zorionak **Malen** bihar 5 urte egingo dituzulako. Etxeko guztien partez.



▶ Zorionak **Garazi Ariola** domekan 2 urte egingo dituzulako. Etxekoan eta bereziki, ahizpa Iruneren partez.



▶ Zorionak **Izan** amatxo eta bere familiakoan partez. Asko maite zaitugu.



▶ Zorionak **Aitor eta Amaia** atzo eta bihar urteak egin dituzuelako. Etxekoan eta Nerearen partez. Muxu bat.



▶ Zorionak gure **punkitxo eta aitaxo** zuen urtebetetzean. Familiakoan eta lagunren partez.



▶ Zorionak **bikote** zuen 50. urteurrenean. Familiako guztien partez.



▶ Zorionak **Adrian** urriaren 2an 12 urte egin zenituelako. Familiakoan partez muxu handi bat.



▶ Zorionak **Txapeldun!** Muxu handi bat Josu eta Leireren partez.



▶ Zorionak **Nerea** domekan 7 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.

Zerbitzuak



[OKINDEGIA]

8 igandea IBARRENEA
12 astelehena BOLINTXO
15 igandea DOÑA MERCEDES



[FARMAZIAK]

	GUARDIA 24 ORDUZ	KANPOKO FARMAZIAK
6	Etxeberria (<i>Errosario</i>)	IBÁÑEZ
7	Ibañez <i>(* Goizez Etxeberria Santa Ana)</i>	Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38
8	Ibañez	
9	Bidasolo	FERNANDEZ
10	Etxeberria (<i>Santa Ana</i>)	Hemiko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42
11	Fernandez	
12	Yudego	ZABALETA
13	Zabaleta	Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84
14	Etxeberria (<i>Errosario</i>)	
15	Etxeberria (<i>Errosario</i>)	
16	Ibañez	
17	Bidasolo	
18	Etxeberria (<i>Santa Ana</i>)	
19	Fernandez	
20	Yudego	

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Emua zonaldean.*

ERROSARIO KALEKO JAIAK

Urriak 6 (barixakua)

17:30 Sokamuturra

Ondoren, kalejira alai Musika Eskolako trikitilariak eskeinita

21:15 Errosario kalekoen afaria Kultur Etxeko sotoan (*Tiketak Gorostizan: 20 euro)

Urriak 7 (zapatua)

8:00 Kalean hildakoen aldeko meza Santa Klaran

11:30 Esku pilota partiduak Elgoibarko gazteen artean

12:00 Esku Pilota partiduak Lagunak eta Iparraldeko pilotarien artean

19:00 Kalean hildakoen aldeko meza parrokian

Berehala, Errosariko Ama Birjinari Otoitza eta Salbea.

EIBAR EZKONTZA AZOKA 2006

NON: ARMERIA ESKOLAKO PABILIOIAN
(Kalea gasolondegiaren parean)

NOIZ: URRIAK 21 eta 22

arabiarrean
Zelatik 2 Euro

igandean
Telatik 1 Euro
Zelatik 2 Euro

- ~ Erakusketazoka
- ~ Eusúlea
- ~ Eusketak
- ~ Zozketak



** Sarreko ataria jende guztiarenakoa*

** Ezkontzarako ataria den gutxi*

[6 BARIXAKUA]

17:30 KIRIBILKA PROGRAMA

2-6 urteko haurrentzat eta hauen gurasoentzat
Plaza Handian

Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

22:15 ANTZERKIA

Antzezlan: "Nasdrovia Chejov!"
Taldea: Vaiven Produzioak
Herriko Antzokian

[7 ZAPATUA]

11:30 ELGOIBARKO EMAKUME AHOTSAK-EN ALDEKO SINADURA BILKETA

Adierazpenarekin bat egiten dutenen sinadura bilketa
Plaza Handian

[8 DOMEKIA]

10:00 MENDI IRTEERA

Otarrera (816 m.)

Irteera: Ikastolatik

Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

11:30 ELGOIBARKO EMAKUME AHOTSAK-EN ALDEKO SINADURA BILKETA

Adierazpenarekin bat egiten dutenen sinadura bilketa
Plaza Handian

16:30 ANTZERKIA

Antzezlan: "Robin eta Hood"
Taldea: Gorakada antzerki taldea
Herriko Antzokian

[12 EGUENA]

11:00 PILARREKO

AMABIRJINAREN JAIA

Pilar Ikastetxean

12:00 SAN PEDRORA

TXIRRINDULARI IGOERA

Irteera: Plaza Handitik
Antolatzailea: Lagun Taldea

[20 BARIXAKUA]

19:00 KOKOE KOMIKI

ELKARTEAREN ERAKUSKETA

IX. Komiki Lehiaketan parte hartu duten lanak

Kultur Etxean

Antolatzailea: Kokoe K.E.

Urriaren 27ra arte

22:00 BIDEO FORUM-A

Filmea: "Porque las mujeres siempre queremos mas"

Kultur Etxeko hitzaldi gelan

Hizlaria: Eskarne Larrinaga

Antolatzailea: Haizea E. T.

22:15 DEBAJAZZ

Debarroko Jazz Jaialdia

Taldea: "Los Reyes del K.O."

Herriko Antzokian

ZINE

KARTELDEGIA

ELGOIBAR HERRIKO ANTZOKIAN

«Poseidon»

7, zapatua: 19:30-22:15

8, domekia: 19:30-22:15

9, astelehena: 21:30

«Alatriste»

12, eguena: 19:30-22:15

14, zapatua: 19:30-22:15

15, domekia: 19:30-22:15

16, astelehena: 21:30

«Superman»

13, barixakua: 22:15

15, domekia: 16:30

EIBAR, UNZAGA

«Serpientes en el avión»

6, barixakua: 19:30

7, zapatua: 17:00-19:30-22:15

8, domekia: 17:00-19:30-22:15

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitzena: 19:30-22:15

11, eguaztena: 19:30-22:15

EIBAR, RIAÑO

«Kutsidazu bidaiaria Ixabel»

6, barixakua: 19:30

7, zapatua: 17:00-19:30-22:15

8, domekia: 17:00-19:30-22:15

9, astelehena: 19:30-22:15

10, martitzena: 19:30-22:15

11, eguaztena: 19:30-22:15

BARREnek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

«Poseidon»



Zuzendaria: Wolfgang Petersen.

Antzezleak: Kurt Russell, Josh Lucas, Richard Dreyfuss

Poseidon luxuzko itsasontzian urte zahar eguna ospatzen ari dira ipar Atlantikoko ozeanoaren ur hotzetan. Bere kategoriako barkurik onenetarikoa da: 20 pisutik gorako altuera du, 800 kabina eta bidaiarienezako 13 kubieta ezberdin. Bidaiari guztiak txanpaina eskuetan dutela ari dira urte berriaren omenez topa egiten, baina lehen ofiziala gauzak ez daudela behar luketen moduan ohartuko da.

«Alatriste»

Zuzendaria: Agustín Díaz Yanes.

Antzezleak: Viggo Mortensen, Elena Anaya.

XVII. mendeko Espainian, erregearen zerbitzura dagoen soldadu leial eta baliotsua da Diego Alatriste. Flandeseko lurralde hotzetan borrokan ari dela holandarren iruzurrean erori eta bere lagunik onena, Balboa, larriki zaurituko dute. Hilzorian dagoela, azken eskaria egingo dio Balboak Alatristeri; bere seme Inñigori ez diezaiola soldadu izaten laga. Espainiara itzultzean hilzorian dagoen inperioa aurkituko du Alatristek.

Atzera hegira



1913. urteko erretratu zahar hau **Pedro Agiregomezkortak** laga digu. Bere gurasoen ezkontza eguneko argazkia da. Urtarrilaren 31n ateratako argazkia da. Bertan ikusten ditugun bi bikoteak egun berean ezkondu ziren, bata Etxebarrin eta bestea Barinagan. Lagun onak ziren bi bikoteak, eta ezkontza ere, egun berean egin zuten. Argazkian ikusten den bezala, garai hartako jantziek ez daukate gaur egungoekin zerikusirik. Hala ere, oso dotore ikusten ditugu bi bikoteak. Gogora ditzagun zein diren:

Goian, ezkerretik eskumara: **Patrizio Arano** () eta **Victorio Agiregomezkorta** ().

Eserita, ezkerretik eskumara: **Agapita Oregi** () eta **Isabel Ibarluzea** ().



I. URTEURRENA

2005eko urriaren 8an hil zen

Sabin Larreategi Orunaren

oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, urriak 7, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



Lurorotako automobil familiarretan

70 urtetako esperientzia

edukitzea ez da kasualitatea.
Chevrolet Captiva berria
Begirada guztien zentrua.
Europarentzat bereziki egina.
5 eta 7 eserlekurekin.
Diesel 150 CV.
Gasolina motorra
136 CV eta 230 CV.
Captiva Gama
23.330 €-tik hasita.



Diesel 150 CV 4x4 29730€-tik hasita

3 URTEKO ERREKLA
edo 100000 Km.

Chevrolet Captiva

Giauto 902 345 225

Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karabi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
clientes@giauto.es

www.chevrolet.es




Chevrolet gehiago da.

Pozio gomendatua Pasaia eta Bazar Uhartetan. Captiva 2.4 LS eta Captiva 2.0 VCDi LT 5 esotikurorik (SEZ, matrakala zerga, gantzio eta Prover Plana Gasolina berri). Hileko bukatu arte. Kontsumo mitza (l/100 Km): 7,4-11,5. CO₂ igorpena (g/Km): 191-264. 3 urteko bermak edo 100000 Km, bermaren legeari (23/2002) kaltetu izan gabe.



**Eguneroko ezusteeak
ez dezaten atzerapenik
ezta produktibotasun
galerarik sortu**

informatica
circulan





Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 16
☎ 943 74 31 16

Etxekit

Sukaldeak eta bainuak
Antonio Arrillaga, z/g
☎ 943 74 43 47

Garcia

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
☎ 943 53 14 71
☎ 646 90 55 64
☎ 609 05 49 78

Lodoso

Leihoak
Sigmako industrialdea
Xixillon 2-2. pabilloia 3. zenb.
☎ 943 74 34 90

Soraluze

Leihoak-Armairu enpotratuak
Santa Ana, 8
☎ 943 74 36 34

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Igeltseritza

Antonio Markez

Urasandi, 24
☎ 943 74 34 18

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Iturgintza, berogailua, gasa, eguzki energia eta klimatizazioa

Ongi

Olaso Poligonoa, 15-68 pabilloia
☎ 943 74 28 80

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 19 MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Zaldua

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa:943 53 18 05

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Aramar

Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76



Proiektu eta erreformak

Bigara Erreformak

San Frantzisko, 11-5
☎ 696 95 27 95/696 95 27 96

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Santa Klara, 26 behea ezk.
☎ 943 74 15 52/606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40/607 74 04 40



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabilloia
☎ 943 74 30 94



Indusketa lanak

Lekunberri Indusketak

Indusketa eta indusketa txikiak
Lekunberri baserria

☎ 943 74 20 98/629 42 56 32
koldo@movistar.com

www.excavacioneslekunberri.com